

DOKUMENTUAK

SINDIKALISMOA ETA FEMINISMOA

Sindikalismo feminista eraikitzeko
hausnarketa eta ibilbideak

SINDIKALISMOA ETA FEMINISMOA

Sindikalismo feminista eraikitzeko hausnarketa eta ibilbideak

1. ZER DA SINDIKALISMO FEMINISTA ETA ZERGATIK DA BEHARREZKOA SINDIKALISMO FEMINISTA EGITEA	3
2. ZER PROPOSAMEN PLANTEATU DIRA?	8
3. ETORKIZUNERA BEGIRAKO TRESNAK ETA ANALISIAK	14
SINDIKATUAK GURE BIZITZAREN PARTE DIRA.....	17

Dokumentuak 49

2021eko uztaila

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

*“Feminismoaren eta sindikalismoaren arteko topaketak”
mahai-inguruaren transkripzioa da testu hau. Defender Andalucía-k
2021eko maiatzaren 19an antolatu zuen solasaldia.*

1. ZER DA SINDIKALISMO FEMINISTA ETA ZERGATIK DA BEHARREZKOA SINDIKALISMO FEMINISTA EGITEA

Pastora Filigrana

Oinarriko sindikalismoa edota klase sindikalismoa, langileen antolakundeak dira: langile diren aldetik pairatutakoen ondorioz antolatu diren langileen bilguneak, eta norberaren minetik erantzun kolektibo bat sortzen eta errealitatean eragiten eta errealitate hori aldarazten saiatzen dira. Bereizi egin nahiko nuke oinarriko sindikalismo hori gehiengoaren sindikalismo instituzionaletik. Sindikatu horiek ez dira langileak lehen pertsonan antolatzen dituzten erakundeak, beren interesak defendatzeko; aitzitik, makroegiturak dira, eta eragile sozialak bihurtu dira; haien konpromisoa gehiago da bake sozialari eustea, langileen eta enpresa edo patronalaren arteko erdibide batean. Sindikalismoaz ari naizelarik, klase sindikalismoaz ari naiz.

Klase sindikalismoa ez da mugatzen borroka jakinetan eskubide jakin batzuk lortzera; sindikalismo horren xedea eta ahalegina da langileak ustiatzen dituen ordena sozio-ekonomikoari aurka egitea, ordena hori iraultzea. Gerrako makina orok, kasu honetan klase sindikalismoak, guztiaren aurka egin nahi du, sistema ekonomiko osoaren aurka; izan ere, sistema horretan munduko biztanle gehienak behartuta daude beren lan-indarra merkatuan saltzera, bizitza duin bati eusteko aukera emango dion errenta lortze aldera. Bada, guztiaren aurka egin nahi duen sindikalismo horrek, halabeharrez, patriarkatuari ere aurka egin behar dio. Klaseko feministon edo kapitalismoaren aurkako feministon iritziz, patriarkatua joko ekonomikoaren arau horien zuztarretan erabat sartuta dago, eta generoa irizpide nabarmena da munduan aberastasuna eta lana modu jakin batean banatzeko. Horren ondorioa da mundu zabalean okerren ordaindutako lana, aitortza gutxien duen lana, lan prekarioena, emakumeek egin izan dutela eta egiten dutela. Eta emakumeen artean, pobleenek. Patriarkatua eta kapitalismoa “aliantza kriminal” bat dira.

Hori erreala da. Beraz, hori da lehen arrazoa sindikalismo feminista egiteko: ezinbestean auzitan jarri behar dugu patriarkatua, bigarren mailako auzitzat utzi gabe, piztiaren bihotzari eraso egingo badiogu.

Bigarren arrazoa da lan funtsezkoenak emakumeek egiten dituztela, eta zer paradoxa, lan horiek dira prekarioenak. Ikusi dugu pandemian zein diren bizitzari eusten dioten lanak, bizitza bera ageriko arriskuan egon denean; ikusi dugu nola dauden oso lan garrantzitsuak: gaixoak zaintzen dituzten pertsonak, garbiketan jarduten dutenak, osasun arlokoak, elikagaiak ekoizten eta nekazaritzan lan egiten duten pertsonak... Sektore estrategikoak dira, funtsezkoak, gainerako ekonomia sostengatzen dutenak. Jende askok telelana egitera edo ABEEra joan behar izan dugun garaian, beste pertsona askok ezin izan dute gelditu. Oinarri-oinarrizko sektore horiek, paradoxa badirudi ere, prekarioenak dira, eta feminizatuena eta arrazializatuenak ere bai. Uneren batean hausnarketa hau ere egin beharko dugu: klase feminismoa ez ezik, arrazakeriaren aurkako sindikalismoa ere bada.

Sektore feminizatu horiek, oinarri-oinarrizkoenak dira. Sektore horietan, emakume langileak dira batez ere borroka egiten dutenak, eta borrokak berak funtsezkoak dira gatazka sindikalean. Dena aldatzeko domino-efektu horren bultzadan. Izan ere, halaxe da, emakumeek mugitzen dute mundua, ekonomia. Emakumeen lana, ordaindutakoa nahiz ordaindu gabea, edo gaizki ordaindutakoa, gaitz bat da. Sindikalismoarentzat estrategikoa litzateke sektore horietan gatazka hauspotzea; horrek domino-efektu hori sortuko luke, eta beste sektore ekonomiko batzuetan izango luke eragina.

M8ko greben asmoa hori zen, agerian uztea sektore horien egoera, zaintzen esparruan greba egitea oso zaila izan arren. Egile feminista batzuek uste dute, hain zuzen, ezintasun edo zailtasun horrek berak agerian uzten duela zaintza-lanak direla munduari eusten diotenak. Zaintza-lan horiek estrategikoak dira sindikalismoarentzat. Egiatz gatazka areagotzea lortzen bada, lan-eskubideak duintzea lortzen bada, sektore horien airtortza handiagoa lortzen bada, sektore feminizatu horientzat eskubideak lortzeaz gain, eredu ekonomiko osoari egiten diogu aurka. Horrek berekin ekarriko luke aberastasuna beste modu batera banatzea eta bestelako ordena ekonomiko bat.

Biharko egunean etxeko langileek langabezia-prestaziorako eskubidea izango balute, garaipen handi bat lortuko genuke. Baina horrez gain, bide handi bat urratuko genuke aberastasuna beste era batera banatzeko, zaintza-lanak erdigunean jartzeko eta ordena auzitan jartzeko, eta lanaren eta kapitalaren arteko indar-korrelazio horretan posizioak berreskuratuzeko. Sektore prekarizatuenetan emakume langileek bultzatutako borroka estrategikoak dira eta emakume guztiok salbatzeko bidea dira.

Sindikalismoak jabetu egin behar du horretaz. Klase sindikalismoak leku nagusia eman behar dio prekariedade egoeran dauden emakume langileen borrokari. Begirada feminista hori izan behar du: Zergatik dira emakume langile horiek egoera prekarioenean daudenak? Eta hortik abiatuta planteatu behar du borroka. Ez etikagatik edo feminismoarekiko konpromisoagatik soilik, baizik eta egiaz estrategikoa delako langile klasearentzat.

Jone Bengoetxea

Bazirudien sindikalismoa eta feminismoa uztartu ezinak zirela, oximoron bat zela. Azken aldiaren behin eta berriro deitzen digute gai horri buruz galdetzeko, baina berez, aspaldi-aspalditik izan dira emakumezkoen borroka, hala Euskal Herrian nola Espainian. Sindikalismo feministari buruz ari garenean, nire buruari galdetzen diot: Nork esango digu zer den sindikalismo feminista? Mugimendu feministak? Langile klaseak? Nork jartzen du bandera?

Ordezkatzen dudak sindikatutik, uste dut egiten dugun feminismoa hezuramaitzen ari garela oraindik, eta oraindik ere sindikatu feminista bat izateko bidean gaudela. Maiatzaren 1eko kartelak eta iruditeria feminizatzen ari dira. Feminismoa, ELAn, praxian oinarrituta egiten da. Egunez egun eraikitzen doan prozesua da, batez ere lantokietan. Baita mugimendu feministarekin aliantzan ere.

ELA ezohiko sindikatua da, *rara avis* bat. 110 urte ditu sindikatuak, 101.000 afiliatu ditu (doi-doi 2.800.000 biztanle dituen lurralde batean), 9.000 delegatu, eta gutxi gorabehera 370 lagun gara egitura organiko-politikoan. Klaseko sindikatua gara, burujabetzaren aldekoa, kontrabotere-eredua defendatzen duena, "kontzertazio sozialeko" ereduaren

kontrarrean. Beste eredu hori elkarrizketa sozialeko mahaietan egiten da, erakundeekin itunak egitearen aldekoagoa da, sindikatu handiago eta burokratikoagoetan, eta batez ere estatu mailan. Horrenbestez, konzertazio-eredu hori defendatzen duten sindikatuen aldean erabat beste muturrean dago ELA.

Feministak gara, eta feminismo hori eraikitzen ari gara gure egitura osoan. Ez naiz ausartzen esatera sindikatu feminista garenik. Egia da, hala ere, egunez egun gero eta lan-gatazka feminista gehiago ditugula gure lantokietan, eta gero eta emakume gehiago gabela sindikatuan, hala egituretan nola afiliazioan. Guretzat, gaur egungo datu esanguratsuena, larriz azpimarratzekoa, honako hau da: ELAko afiliatuen %46 emakumea da.

ELAren beste bereizgarri nagusia autonomia politikoa (ez gaude inongo alderdiri lotuta) eta finantza-autonomia da. Oinarri-oinarrizkoa da hori erakunderako; izan ere, sindikatuaren aurrekontuaren %90 baino gehiago afiliazioaren bidez finantzatzen da. Erresistentzia-kutxa da funtsezko beste elementua: ez da finantza-autonomiarako iturri soila, hori baino gehiago langile klasearen barnean elkertasunerako tresna bat da.

Oraindik ere gizonezkoen erakundea da eta erakunde maskulinizatua. Areago, emakumeok beti egiten dugun barne-diagnostikoaren arabera, sindikatua langile-klasearen interes orokorrari buruz ari denean, lan-munduan gizonezkoek dituzten interes eta beharriaren izenean ari da. Jakin badakigu lan-mundua sexuaren arabera banatuta dagoela, eta horrek sortzen dituen ondorioak eta inpaktuak desberdinak direla gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat. Eta langile-klasearen ustezko interes orokor hori ez dator bat langile-klase horren heterogeneotasunarekin. Gaur egun, generoaz, arrazaz eta klaseaz hitz egin dezakegu. Duela gutxira arte pentsaezina zen hori. Oraindik ere zaila da gai hori negoziatzio kolektibora eramaten duzunean, adibidez.

Errealitateak berak erakusten digu, zeinen beharrezko dugun sindikalismo feminista. Batez ere begiratzen badugu non dagoen prekaritatea soldatapeko lan-merkatu formalean (guk ekintza sindikala dugun esparruetan). Azken hamarkadatik hona, greba eta gatazka gogorrenak, konplexuenak, luzeenak sektore feminizatuetan gertatu dira. Egoera are okerragoa da etxeko langileen eta zaintza-lanetan ari diren langileen

kasuan; langile horiek ez dute ezta sindikalizatzeko eskubiderik ere, ez dute patronalik, ez hitzarmenik... Aparteko araubide berezi bat dute. Alde horretatik, sindikatuok zor historiko bat dugu.

Guretzat greba nagusiak adinekoen egoitzetakoak izan dira: horien bidez, ELAren irudia gure mugetatik kanpo hedatu da, batez ere Espainiako estatuan.

Bizkaiko egoitzetan, langileek 378 greba egun egin dituzte jada, Gipuzkoan 250 baino gehiago egin dituzte, eta Araban eta Nafarroan ere greba dinamika horri jarraitzen diote. Gasteizen, ehunka emakumek ia 3 urte egin zituzten greban adinekoen egoitza batean, Ariznabarra egoitzan, hain zuzen. Jendeak ez dauka greba horren berririk.

Lantokietan gertatzen diren sexu-indarkeria eta indarkeria sexista erabat ikusezinak dira. Patronala bera ere ausartzen da esatera estatistikarik ez dagoela, eta beraz, ez dela halakorik existitzen. Begien bistakoak dira behin-behinekotasunari, partzialtasunari, langabeziari, soldata-arrakalari eta abarrei loturiko datuak. Begien bistakoak, bai, baina oraindik ere kostatzen da ulertzea, gu, emakumeok, ez garela sektore bat. Oraindik ere badago joera emakumeei buruz sektore bat bagina bezala aritzeko; ez ordea, gu langile-klasearen erdia gara, biztanleen erdia.

Guretzat ezinbestekoa da emakumeen eskubideen urraketa sindikatua-ren lehen lerro estrategikoan egotea. Emakumeok geure buruaren kontzientzia hartzeko, konfiantza eskuratzeko, barnean eta kanpoan botere gehiago lortzeko prozesu asko ahalbidetuko lituzke horrek. Ez emakume garen aldetik soilik, baita langile garen aldetik ere. Horregatik esaten dugu sindikatua bere horretan ez dela helburu bat; bitarteko bat baizik, gauzak lortzeko tresna bat. Gure ingurune horretan baliabideak izan behar ditugu, besteak beste, erresistentzia-kutxa, zerbitzu juridikoak, lantaldeak, hauteskunde sindikalak, lantokietara eginiko bisitak, barneko formakuntza politikorako lana...

2. ZER PROPOSAMEN PLANTEATU DIRA?

Pastora Filigrana

Ez dugu errezeta erabatekorik; izan ere, sindikalismo feminista egunez egun erakitzen ari da. Bizi dugun eta bizi gaituen sindikalismoa ez da feminista oraindik. Nire ibilbidean, bietan aritu naiz, sindikalismo klasikoan, SATen bidez, eta sindikalismo autonomoko beste proposamen batzuetan laguntzen: etxeko langileen elkarteetan, paperik gabeko migratzaileen elkarteetan, gaur egun “Huelvako Emakume Jornalariak Borrokan” mugimenduan, eta horietan guztietan nabaria da elkarrizketa falta dela indarrak batzeko. Borrokan parte hartu duten emakume askok, sindikalismotik aparte borrokatzea erabaki dute. Adibidez, etxeko langileen elkarteak, historikoki, sindikatuetatik kanpo antolatu izan dira. Sindikalismoak ez dituelako oso aintzat hartu lan-sektore horiek, gaur egungo eredu sindikalak nekez bat egiten duelako desaraututako sektore horiekin. Zenbait sektore, batez ere feminizatuak, beti desarautuak egon dira, ez dira guztiz lantzat hartu; orobat, sektore horietan ez da patroirik izan, ez eta lantokirik ere... Etxeko zerbitzuen sektorean, langilea etxe jakin batean dago, ugazaba jakin bat du, ez du topo egiten beste lankide edo adiskide batzuekin. Zaila da borroka sindikalik antolatzea, gutxienez sindikalismo tradizionalaren antzeko borroka sindikalik.

Besteak beste, arrazoi horren ondorioz, emakumeak sindikatuetatik aparte antolatzen dira. *Kelly*-en esperientzia ere indar handikoa izan zen: garbitzaileak, ostalaritzako langileak, hoteletakoak eta bulego-eraikitakoak duela hainbat urte bildu ziren elkarteetan modu autonomoan, eta beraiek jarri zieten izena elkartei: *Kelly*-ak. Lurralde batzuetan *Kelly*-en elkarteak klase sindikatuetan txertatuta daude moduren batera, edo haien eskutik doaz.

Gaur egun, Sevillako SATen indarrean da ospitaletako eta adineko egoitzetako erizain laguntzaileen borroka, pandemian lehen lerroan egon diren heroiena. Atal sindikalak ditugu zentro horietako batzuetan, erabat feminizatua dagoen sektore honetan.

Etxez etxeko laguntzan diharduten langileen borroketan ere haien ondoan gaude. Sektore oso feminizatua da eta prekarietatea muturrekoa

da; administrazio publikoarentzat aritzen dira lanean, baina lizitazioetara ateratzen diren enpresek azpikontratatuta daude. Horren ondorioz, soldadak eta lan-baldintzak nabarmen murriztuak dituzte. Pandemian ikusi genuen moduan, “oinarrizko beste sektore” baten adibidea da etxeko etxeko laguntzaileen. Garbitzea, zaintzea, ondoan egotea, adinekoei eta zaintzarik ez duten mendeko pertsonei garbiketara eta jaten laguntzea... horiek dira funtsezko jarduerak eta sektoreak. Etxeko emakume langile horiek sindikatuen gurasokeria gaitzesten dute eta autonomia handiagoa aldarrikatzen dute. Nire ustez, sindikalismo tradizionalak egitura burokratizatua du, legearen bidez saiatzeko da lan-gatazkak konpon-tzen, protestaren bidez ere bai, baina nolabaiteko “protestarako eskuliburua” gidatzen hartuta. Finean, sormenerako tarte txikia uzten du.

Sindikalismo-moldeak berrasmatu behar dira; izan ere, etxeko langileen sektorean, adibidez, ezin da piketerik egin. Nire iritziz, emakume langileen borroka autonomo horiek borroka sindikalak dira, autonomoak, eta eredu argiak dira etorkizuneko sindikalismoa nola antolatu eta bideratu jakiteko. Sindikalismo sozial hori oso garrantzitsua da niretzat.

Lan-munduaren ardatzetara mugatzen ez den sindikalismo hori. Hau da, langile horiek ez dira antolatu beren lantokietan lan-eskubide batzuen alde soilik; aitzitik, beste era batera antolatu dira, beste arazo sozial eta min batzuei erantzuteko. Hipotekek kaltetutakoen plataforma oso argia da: arazo indibidual bat duen jendea, etxea galtzera doan jendea, elkartu egin da erantzun politiko kolektibo bat antolatu eta bideratzeko.

Borroka autonomo asko sindikalismo sozialeko horrelako moldeak ari dira sortzen. Etxeko langileena, adibidez, sindikalismo sozialagoa da: emakumeak lan-aldarrikapenak egiteko ez ezik elkarri laguntzeko ere biltzen dira, elkarri babesa ematen diote norbait gaixotzen denean, lankide-
ren bat etxebizitza edo lana galtzeko arriskuan dagoenean... Mutualistak dira, ezta?

Irudipena dut hasierako sindikalismoa horrela izan zela pixka bat. XIX. mendean, sindikatuak ez ziren sortu lan-gatazkak bideratzeko soilik; etxebizitza-kooperatiba haiek guztiak, ekonomatoak, oinarrizko mutualismorako deialdiak, etab. elkar babesteko ere baziren, hein batean. Jendea elkartu egiten zen bizitzari eusteko, etengabeko erasoei aurre egiteko: gaixotasunei, langabeziari, etxebizitzaren arazoari, hornigaiari

eta elikaduraren arazoei... Denboraren joanean, sindikalismoa lan-esparru hutsera mugatu da eta askotan “zerbitzuen” ereduak kopiatu besterik ez dugu egiten: norbait arazo batekin dator eta konpondu egiten diogu, eta ahaztu egiten dugu kontzientzia-hartze hori, militantzia eraikitzeko behar hori.

Uste dut sortzen ari den sindikalismo autonomo feministak zantzu asko ematen dizkigula aurrerantzean sindikalismoak zer bide hartu beharko lukeen jakiteko. Lana gero eta desarautuago dago (Uber, riderrak, autonomo faltsuak, telelana...), eta gero eta ohikoagoak dira etxeko langileek betidanik jasan izan dituzten muturreko egoeren antzekoak.

Nekazaritzan ere (sektore oso feminizatua eta arrazializatua hori ere), nabarmena da joera hori. Sektorre asko egoera horretara hurbiltzen ari dira eta horrek berekin dakar sektoreotako langileak ez erabateko langiletzat hartzea.

Nik uste dut, sindikalismoak, borroka horiek gurasokeriaz edo antolaketa mailako nagusitasunez begiratu beharrean, kopiatu egin behar dituela. Eredu zentralista bera, hierarkikoa, sektore oso zurrundetara antolatua (metala, hezkuntza, administrazio publikoa...), berrasmatu beharrean da, jada ez duelako funtzionatzen: jendeak jada ez dauka bizitza osorako lan bat.

Deszentralizazioa, feminismoak aldarrikatzen eta emakumeen borroka autonomoek praktikan jartzen duten horizontaltasuna, jarraibide egokiak dira.

Nago sindikalismo feminista bat sortzen ari garela. Sutsuki defendatzen dut sindikalismoak ezin duela hil, bere burua berrasmatu behar duela, hobetu... Baina gerra-makina horiek behar ditugu.

Krisi honetatik ateratzeko proposamena beti-betikoa da: “Ordain dezatela langileak, murriztu ditzagun haien soldatak, zerbitzu publikoak, prestazioak eta abar”. Sindikalismo osasuntsua behar dugu, ondo olioztatua eta langileen artean elkartasun sendoarekin, internazionalista.

ELAk 100 urteko esperientzia du, ezin du alde batera utzi bere historia guztia. Baina berrasmatu beharra dago, kapitalismoak bere burua

berrasmatu duen moduan. Neoliberalismoa egunero ari da berrasmartzten eta batzuetan erabat zaharkitutako eta herdoildutako makinekin ari gara haren kontra borrokan. Elkarrizketa eta bat-egite hori aurkitu behar dugu; izan ere, bizitza bera dugu jokoan.

Jone Bengoetxea

Zenbaitetan, sindikatuaren barnean feminista naizen aldetik, halako erresistentzia bat sumatzen dut erakundean. Eta mugimendu feminista-
tarekiko ere sumatzen dut erresistentzia hori. Martxoaren 8ko lehen greba feministaren bezperetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako jardunaldi batean ehundaka emakume bildu ginen eta hizlari adituei galdetu zitzairen ea beldurrik ematen ote ziren sindikatuak egun horretaz jabetzeak. Areto hartan, emakumeak ginen guztiak, baina ez zegoen supermerkatuko kutxazainik, ez adinekoen egoitzetako langilerik ez etxeko langilerik... Denak ziren nirearen antzeko profilekoak, ikasketak dituen jendea, horietatik asko, ondo ordaindutako enplegu egonkorrekin, militante eta ekintzaile feministak, eta horregatik, oso deigarria egin zitzaidan galdera. Feminismoaren parte batek benetan horrela ikusten gaitu sindikatuak oro har? Anekdotak horrek argi erakusten dut nola batzuek faltan sumatzen dugun klase-begirada horrelako topaketa feministetan. Gure herriaren egiturak eta soziologiak ere zerikusi handia dauka.

ELAn bi lan-ildo nagusi ditugu: negoziazio-kolektiboa eta gizarte-ereduari loturiko proposamenak. Guk gizarte-eredu feminista aldarrikatzen dugu, eta feminismoari egiten diogun ekarpena lantokietako borroka zehatzetan egiten dugu, sektore feminizatuetan. Feminismoari esaten diogu gure ekarpenak horiek direla: adinekoen egoitzetako grebak, etxeko laguntza-zerbitzuetakoak, garbiketakoak, merkataritzak eta ostalaritzakoak...

Zenbaitetan, ELAk eraikuntza nazionalaren alde zer egiten duen galdetzen digutenean, hala esaten diegu: emakumeak afiliatzen ditugu, eta ez dira emakume subiranistak, ez daude ideologizatuak eta ez dira militante feministak. Sektore sozial xehetako emakume langileak afiliatzen ditugu.

Agian gutxi da, baina lantokietan ere egiten da eraikuntza nazionala. Eraikuntzaren zati bat da. Ondoren, jende askoren artean antolatu behar

dugu. Baina adinekoen egoitzetako grebalarien lorpen zehatzak beste lan-sektore batzuetara hedatu dira. Bistan denez, lanerako eta antolatze-ko beste molde batzuk berrasmatu behar ditugu, baina 378 eguneko greban, lan arloko irakurketaz harago joan liteke: metaleko edo gizonezkoak nagusi diren sektoreetako greben aldean, lan-greba feministetatik ikasgai asko atera ditugu jardun feministari buruz. Guretzat, emakume horiek genealogia feministaren parte dira.

Bizkaiko egoitzetako greba irabazi zenean, oso deigarria iruditu zitzaigun garaipenak Estatuan izan zuen oihartzun zabala; izan ere, Euskal Herrian, ez ziguten horrenbesteko arretarik jarri. Estatuko aldizkari, talde eta elkarteetatik deitu ziguten, grebalarien ahalduntze-prozesuen berri izateko. Guztiek jakin nahi zuten zer gertatu zen beren bizitza pertsonaletan, eta jakina, horrek ere bazuen bere munta. Baina inork ez zuen jakin nahi nola eutsi zioten ehunka emakumek kalean 378 egunetan. Ezta zenbat urtetako lana, zenbat epaiketa, zenbat batzar, zenbat negar izan zen ere. Atzean 20 urteko lan sindikala zegoen. Emakume horiek gehienak, gainera, ez ziren aurrez emakume ekintzaileak. Hortxe dago ELAren berezitasuna. Sindikalismoa eta zehazki sindikalismo feminista egiteko beste modu bat asmatzen ari garen honetan, gurekin lanean ari den jendearen profila ez da ekintzailearena. Beharizan materialetatik abiatzen gara, eta gure helburu nagusia da jende hori militante soziala izatera iristea, edo gutxienez lan-borroka horrek horretan eragina izatea. Bistan denez, lan arloan lortutakoari balio izugarria emanda.

Pandemiaren hasieran, sindikatuak agiri bat atera zuen, Covidaren krisiari aurre egiteko proposamen eta alternatiba jakinekin eta politika feministen ataletik beste agiri bat atera genuen, izenburu honekin: Krisiaren irtenbidea feminista izango da! Agiri zabala zen eta hainbat neurri planteatzen ziren, pertsonen beharizan materialak asebetetzeko. Era berean, zaintza-lanen aitortza sozial eta ekonomikoaren beharra azpimarratzen zen, bizitzarako zer lan diren funtsezko aipatzen zen, eta zaintzaileen eskubideak eta pertsona guztiok zainduak izateko dugun eskubidea defendatzen ziren. Agiriak aldarrikatzen zuen, orobat, beharrezkoa dela zaintzen euskal sistema publiko eta unibertsala. Aldarri hori gaur egungo gai nagusietakoa da agenda sozial, politiko eta feministan. Hain zuzen, zaintza-lanei loturiko hiru greba izan dira: azaoaren 7an, urtarrilaren 26an eta martxoaren 4an. Zaintzen sektore horretako lan-merkatu formaleko langileak zeuden deituta grebara, baina baita etxeko langileak

ere. Zailtasun ugari izan zen deialdiak egiteko, baina greba horiek jauzi kualitatibo bat ekarri dute. Ez zen sindikatuetakozuzendaritzen erabaki bat izan; aitzitik, langileek beraiek ere eskatzen zuten. “Noizko zaintzen greba?”.

Gure proposamen politikoaren artean zerga-erreforma progresiboaren gaia oso garrantzitsua da, zergak batez ere kapitalak ordain ditzan eta ez langile-klaseak.

Badakigu zaila dela negoziazio kolektibo klasikoaren logikatik ateratzea, baina guk negoziazio kolektibo feminista egin nahi dugu. Ikuspegi klasikotik, langile-klasearen interesak gizonaizkoen interes eta beharriak izan dira. Sindikatuak hitzarmenak negoziatzera joan izan direnean, inork ez zuen galdetzen ea gizonaizkoen eta emakumezkoen beharriak eta interes berak al genituen. Saiatzen ari gara alde horretatik urratsak ematen. Bai negoziazio-mahaietako edukietan bai prozeduretan. Duela gutxira arte, ez zegoen emakumerik mahaietan. Adinekoen egoitzetako langileei galdetu besterik ez dago, zein gune patriarkal eta gogorrek diren mahaiak. Oso garrantzitsua da emakumeak mahai horietan negoziatzen egotea.

Aurreko urtean, 2020an, gatazka garrantzitsua izan zen Bizkaiko metalgintzan. Sindikatu guztiek parte hartu zuten gatazka horretan eta kaleko ekintza zuzenak izan ziren (makinaria puskatzeko ekintzak ere izan ziren). Mediatikoa izan zen dena. Aldi berean, Gipuzkoan, egoitzetako emakume langile ugari askoz egun gehiago zeramatzen greban. Denetarik egin zuten: akanpatzeak, *photocall*-ak, zinema-jaialdi alternatibo bat –Zaintzaldia– Donostiako zinemaldian...Metaleko grebari garrantzirik kendu gabe, zer dela eta emakume horien grebak ez zuen izan horrenbesteko oihartzun mediatikorik mugimendu sozialetan eta mugimendu feministan?

Zaintzen sektoreko langileen borrokak bizitzako prekarietatearen aurkako borrokak dira, eta, era berean, kapitala-bizitza gatazkaren adierazle ezin argiagoak ere badira. Baita lan-merkatu formalean gertatzen direnean ere, merkatu horretan prekarietatea basatia baita. Eta zer esanik ez merkatu horretatik kanpo geratzen den horretan. Lan-merkatu prekarizatu horretan lortutako konkistek oihartzuna eta eragina dute beste sektoreetan ere eta kate-efektua egiten dute prekarietate egoeran

dauden beste emakume langile batzuentzat. Horrelako borroken eta garaipenen erreferentziak behar ditugu.

Aipatutako gatazka horiek (Ariznabarra, Bizkaiko eta Gipuzkoako egoitzak) bat datoz muinean: publikoak izan beharko luketen zerbitzuak dira, baina erabat pribatizatuta daude. Administrazio publikoak beste alde batera begiratzen du eta saihestu egiten ditu bere erantzukizunak. Hori indarkeria instituzionala da. Negozio hutsa bihurtu da; berdin zaie zer gertatzen den adinekoen egoitzetan. Gaur egun, langileen lan-baldintzak hobetzea ez ezik haien erreparazio emozionala ere eskatzen ari gara. Duela gutxira arte, aldarri mota horiek pentsaezinak ziren hitzarmen baten negoziazioan.

Beste gai garrantzitsu bat sektore horietan ezartzen diren gutxieneko zerbitzuen gehiegizkotasuna da; izan ere, ia ezinezkoa bihurtzen baita greba-eskubidea gauzatzea. Gutxieneko zerbitzuak ia %100koak izanik, nork egin dezake greba? Nork egin dezake greba hain funtsezkoak bagara?

Soldata-arrakalaren aurkako borroka oso garrantzitsua da, batez ere garbiketaren sektorean. Enpresetako berdintasun-planak gai hori zuri-tzeko erabil daitezke nolabait, baina plan horiek modu egokian erabiliz gero, lagungarri ere izan daitezke negoziazio kolektibo feministagorantz urratsak emateko.

3. ETORKIZUNERA BEGIRAKO TRESNAK ETA ANALISIAK

Pastora Filigrana

Uste dut zeregin bikoitza dugula: sindikalizatu egin behar dugu feminismoa eta feministagoa egin behar dugu sindikalismoa. Bi gauzak. Eguneroko tripako minak eta bestelako ondoez jakinak biltzen dituen tresna handi bat da feminismoa. Fronte asko ditu feminismoak: emakumeek espazio publikoan sentitzen duten segurtasunik eza, sexu-erasoak, indarkeria matxista, soldata-desoreka, bizitzako ondasun oinarritzkoenak eta eskubide sozialak eskuratzeko desoreka... Feminismoak indarrak

batzeko indar handi hori du, eta masiboa egin da, horrek dakarren gauza on eta txar guztiakin. Arriskuen artean dauka *mainstream* bihurtzea, eta, horren ondorioz, gerta daiteke kontsignak leuntzea...

Feminismoak ahalmena dauka osotasunari aurka egiteko: kapitala-bizitza gatazkari eta ordenamendu ekonomiko eta sozialari maila globalean. Tresna baliagarria da eta zaindu egin behar dugu; izan ere, arrakasta izango badu, langile-klasearen ondoan jartzeko gai izan behar du. Hau da, bizitzaren alde materialera, materialtasunera jaitsi behar du. Etor-kizunera begira feminismoa klase-feminismo bihurtzeko funtzio hori, beharrezkoa da, eta gure egitekoa da. Sindikalista feministak egunez egun ari gara hori ikusten.

Aldi berean, etorkizunari begira, sindikalismoaren barnean kontzientzia feminista hori lantzea egokitzen zaigu. Prekarietatea batez ere emakumeen arazoa da, eta horren ifrentzu, emakumeen lana oinarri-oinarri-zkoa da eta ekonomiaren sostengua. Zaintzen sektorean plan estrategiko bat aldarrikatu behar da, metalgintzan eta beste sektoretan egiten den moduan.

Sindikalismoak ez du eragiteko gaitasun bera izango ez badie emakumeen borrokei metalgintzakoei jarri izan dien besteko arreta jartzen.

Iduri du langileen elite batek jasotzen duela arreta osoa, elite maskulinizatua eta autoktonoak.

Nola lortu? Egiten ari garen hau, hausnarketak bateratzea eta hedatzea, lagungarri da ideia hauek zabaltzeko. Sindikalismo feminista honi bultzada emateko, sarriago entzun behar dugu elkar.

Jone Bengoetxea

Uste dut sindikatuetan gauden feministok topo egin behar dugula. Koordinakunde feministetako zenbait adiskidek sindikatuekiko mesfidantza agertzen dute. Ulertzen dut mesfidantza hori, baina kontraboterea egiten duten sindikatuetan afiliatzera animatzen ditut. Horrekin bakarrik, beren alea jarriko lukete, grebara jotzen duen jendeak erresistentzia-kutxaren laguntza jaso ahal zan dezan, adibidez.

Etorkizunera begira, bi irakurketa egin nahi ditut, bat sindikatu barnera begira eta bestea kanpora begira. Barnera begira, ELAn, 2014. urtetik ari gara “genero ekitatearen aldeko antolaketa-aldaketa” egiten. Prozesu horren bidez, antolaketa sindikalaren kultura bera berrikusten ari gara barnetik. Uste genuen pare bat urteko prozesua izango zela; zazpi daramatzagu, eta oraindik ez dugu bukatu. Sindikatuaren barneko politika feminista guztiak aldatu egingo dira, eta sindikatuaren beraren kultura ere bai. Bultzada nabarmena izango da antolakundearen barnean, baina denbora beharko da ezartzeko.

Kanpora begira, badakigu borroka guztiak osagarriak direla, eta elkarren artean koordinatu behar dugula etengabe. Batez ere mugimendu sindikal feministako ahots batzuek eskatzen dute langileen epika feminista behar dugula. Oso gizonaen kontzeptua da epika, baina jira bat ematen badiogu, apika esan dezakegu (hitz-jokoa eginez). Errelatoak, istorioak, gatazkak, etab. baditugu, baina berez ez dago langile *apika* feministarik. Eraikitzen ari da, baina ez da lortu beharko lukeen garrantzia lortzen ari.

Langileen militantziari begira, guretzat funtsezkoa da sektore sozial apaletako emakume langileak afiliatzen jarraitzea. Ederra litzateke langile klasearen barnean pertsona ideologizatu gehiago egotea, ederra litzateke feminismoa eta sindikalismoa uztartu ahal izatea. Askotan, langileak afiliatzen dira sindikatua erabilgarria zaielako. Hortik aurrera, prozesu bat egin badezakegu, bikain. Zirraragarria da bere burua sindikatu batean militantzen inoiz imajinatuko ez zukeen jendea sindikalismora iratzartzen ikustea.

Autokritika ere egin behar dugu ordea; izan ere, onartu behar dugu, egoera prekarioan dauden langileek urrun sentitzen dutela aktibismoa edota sindikalismoa.

Digitalizazioaren gaiak ere sindikatuan kezka sortzen du etorkizunari begira. Ikusten ari gara jada: Inditexen gertatutakoa, telelana, lan-harremenen atomizazioa... Horrek guztiak gero eta zailagoa egiten du antolaketa kolektiboa.

“Sindikatuak gure bizitzaren parte dira”

Cloti Quesada (Gizarte-langilea eta SATeko militantea)

Pobrezia feminizatua eta giza eskubideen urraketa nabarmen azaleratu dira pandemia honetan ehunka lanpostutan, baita etxeetan bertan ere. Batik bat zaintzei loturiko oinarrizko zereginetan. Pobrezia feminizatua nagusitzen ari da eta aginte-postuetan gizonezkoek jarraitzen dute. Kapitalismoak indibidualismoaren alde egiten du sutsuki eta sindikatuak behar-beharrezkoak dira horri aurre egiteko.

Beharrezkoa da “kristalezko sabaiaz” hitz egitea, aginte-postuetan dauden oztopo horiek hautsi beharraz. Berdintasuna balego postu horietan, seguru asko sindikalismo feminista askoz indartsuagoa litzateke.

Sindikalismo feminista beharrezkoa da langile klasearentzat ez ezik haren inguruarentzat ere, langileen ingurune horren eskubideak ere urratu egiten baitira.

Erakunde sindikalek berdintasun hori behar dute: emakumeek aginte-postu gehiago bete beharko lituzkete. Beharrezkoa da lan-esparruan formakuntza eta informazioa sendotzea. Gizarte-langileen artean eta etxetik etxeko laguntzaileen artean informazio falta nabarmena dagoela ohartu naiz. Ekintzarako edo grebarako formakuntza eman izan dugunean, emakume langileok ez zekiten zer eskubide dituzten langile gisa. Informazioak ahaldundu egiten ditu pertsonak. Kaleko jendeak, oro har, ez daki zer den sindikalismoa, eta are gutxiago sindikalismo feminista. Formakuntza eta informazio sindikala ezinbestekoak dira.

Pandemia garaian, lanerako materialik ez genuenean, ez musukorik, ez norbera babesteko ekipamendurik, greba bat antolatu nahi izan nuen, eta langile guztiek baietz esaten zuten, baina unea iristerakoan, ez zuten denek parte hartu; batetik, informazio faltagatik, eta bestetik, matxismoagatik. Familietan oso sartuta dago matxismoa. “Ez zaitetz greba horretara joan zure eskubideak erabiltzera; izan ere, seinalatu egingo zaituzte, kaleratu egingo zaituzte...”

Pandemiak jatekorik gabe utzi du jende asko, etxerik gabe, ABEEEak jasan dituzte, ez diete soldata osorik ordaintzen, eta, horren ondorioz, egonkortasun ekonomikoa eta ongizatea nahi dute. Batez ere emakumeek erakundeen aldetik jasaten dugun tratu txarrekin bukatu behar dugu.

Gizarte-mugimenduek eta mugimendu sindikalek indarrak batu behar dituzte, eta horretarako, beharrezkoa da gizarte zibilak grebak eta gatazkak normalizatzea. Gatazkak arrarotzat hartzeari utzi beharra dago. Sindikatuak gure bizitzetan txertatuta daude eta gizarte-mugimendu asko sindikalismoaren eskutik sortu dira. Elkar elikatu behar dute eta ezin dira zerbait desberdintzat hartu. Jendea ilusioz bete behar dugu, ahotsa eman, adierazpidea, zerbaiten parte direla senti dezan eta horren alde borroka dezan.

Sindikatu jakin batzuetan, SATen kasuan adibidez (hori baita gehien ezagutzen dudana), lan sozial handia egiten da. Izan ere, lan-eskubi-deen esparruan ez ezik, beste hainbat gaitan ere laguntzen diegu pertsoneri; besteak beste, etxebizitzaren arloan, etab. SATek duen dendan, bertako produktuak daude, eta beste era bateko merkataritza egiten da, sozialagoa.

Zaintzen sektorean lan egiteak neke fisiko eta emozional handia sortzen du epe luzera, eta horregatik, bajak lanbide-gaixotasun gisa hartzea eskatzen dugu, eta ez gaixotasun arrunt gisa. Nekea adinekoak zaindu behar horrek sortzen baitu: norbait dutxatzen duzunean, pisua duen norbaiti eutsi behar diozu, zure bizkarrak sufritu egiten du...

Etkez etxeko laguntzaren sektoreko gatazketan, zerbitzua berriro ere udalen esku jartzea eskatzen genuen, eta beste erakunde sindikal batzuek, hala nola UGT eta CCOO, nolabait geldiarazi egiten zituzten gure aldarrikapenak. Sindikatuok gobernuaren eskutik jasotzen duten diruaren mende daude, eta, horren ondorioz, bertan goxo egin dute.